



2016ko MARTXOAREN 13, ETXEBARRI HIRU DIMENTSIOTAN

1. ETXEBARRIKO XXI. HERRI KROSA.
2. KIROL EGOKITUAREN EUSKADIKO IX. TXAPELKETA.
3. ETXEBARRIKO 10 Km-KO V. PATIN LASTERKETA

ORDUTEGIAK:

10:30 PATINATZAILEEN LASTERKETA, NAGUSI ETA UMEENTZAT.

11:00 PATINATZAILEEN LASTERKETA.

12:00 TESTIGANTZAZKO HERRI KROSA, NAGUSI ETA UMEENTZAT. KROS LABUR EGOKITUA.

12:30 HERRI KROSA. KROS LUZE EGOKITUA.

13:00 PATINATZAILEEI SARIAK EMATEA.

13:15 HERRI KROSEKO ETA KROS LUZE EGOKITUKO SARIAK EMATEA.

ETXEBARRIKO XXI. HERRI KROSAREN ARAUDIA.

1. art.- Etxebarriko XXI. Herri Krosa 2016ko martxoaren 13n izango da. Sexu bietako kirolariek har dezakete parte, nazionalitate bereizketarik gabe, eta lasterketa egunean 16 urte beteta eduki behar dituzte.

2. art.- Lehiaketak izaera herrikoia du, hau da, ez da lizentziarik behar parte hartzeko. Herri-lasterketa denez, antolakuntzak ez ditu bere gain hartuko korrikalariek bertan parte hartzeagatik izan ditzaketen osasun arazoak. Horregatik, arduraz jokatzeko eskatzen diegu korrikalariei, ETA AURRETIK MEDIKU AZTERKETA EGIN DEZATELA.

3. art.- Lasterketa hiri-zirkuituan izango da eta 3 itzuli berdinean egin beharko dira herriko kaleetan

zehir; ZEHAZKI 10.000 metro izango dira, GUZTIZ LAUAK (GPS eta gurpilez neurtu dira). Irteera eta helmuga Udaletxean izango da. Dutzak frontoian egongo dira (Udaletxeko plazan), helmugako marra ondoan.

4. art.- Testigantzazko lasterketa bat egongo da, 2 km-koa, sailkapenik eta saririk gabe, parte hartu nahi duten guztientzat. Izena ematea dohainik da eta irteera 12:00ean.

5. art.- Izena emateko kuota 9 € da aldez aurretik egiten bada otsailaren 15 arte. 12€ Otsailaren 16tik martxoaren 12 rarte eta 15 € probaren egunean egiten bada. Izena emateko, honako web orriaren bidez egingo da: www.sailkapenak.com. LASTERKETA TXIP BIDEZ KRONOMETRATUKO DA. Gizonezkoen eta emakumezkoen sailkapen absolutua ezarriko da; hortaz, sariak egongo dira lehenengo 3 sailkatuentzat, bai gizonezkoentzat, bai emakumezkoentzat, baita herriko lehenengo 3 gizonezkoarentzat eta 3 emakumezkoarentzat ere. HERRIKO PARTE-HARTZAILEENTZAT 5 € IZANGO DA IZENA EMATEA. BERDIN DIO IZENA NOIZ EMATEN DUTEN, EGUNEAN BERTAN EDO LEHENAGO. DORTSALA HARTZEN DUTENEAN, NAN ERAKUTSI ETA HERRIKOAK DIRELA EGIAZTATU EGIN BEHARKO DUTE.

6. art.- Etxebarriko XXI. Herri Krosarekin batera, Kros Labur Egokituaren Euskadiko IX. Txapelketa egingo da, 2 km-ko zirkuituan, eta Kros Luzekoa 10 km-ko zirkuituan.

7. art.- Antolakuntzak hartuko du zirkuitua behar bezala seinaleztatzeko ardura. Parte-hartzaileek errespetatu egin beharko dituzte, trafikoa zuzentzeko, udaltzainek eta antolakuntzako arduradunek ematen dituzten aginduak.

8. art.- Lasterketa dela-eta auziren bat sortuko balitz, antolakuntzak izendatutako batzordeak izango du horretan eskumena.

9. art.- Medikuak lasterketa uzteko esan ahalko dio edozein parte-hartzailei, osasuna arriskuan jartzen ari dela ikusten badu.

10. art.- Debekatuta daude antolakuntzarenak ez diren autoak, bizikletak edo laguntzaileak.

11. art.- Dortsala aurreko aldean eramango da 4 kateorratzez lotuta; kateorratzak antolakuntzak emango ditu.

12. art.- Antolakuntzak ez du erantzukizunik izango kirolariei kalteren bat egiten bazaie edo haiek hirugarren pertsonen egiten badie.

13. art.- Antolakuntzak Erantzukizun Zibileko aseguru kontratatuko du, baita parte-hartzaile bakoitzeko istripu-aseguru indibiduala ere.

14. art.- ANIMA ZAITEZ ETA ERABILI GARRAIO PUBLIKOA. Antolakuntzak arropak uzteko zerbitzua ipiniko du parte-hartzaile guztientzat eta dohainik. Antolakuntzak ez du erantzukizunik izango arropak gordetzeko zerbitzu horretan galdu litekeen materialaren gainean.

15. art.- PARTE HARTZAILEEN ERANTZUKIZUNAK. Antolakuntzak ez du erantzukizunik izango parte-hartzaileek edo materialek izan ditzaketen kalteak direla-eta egin daitezkeen erreklamazio eta eskarien aurrean, galdu, hondatu edo aldendu baldin badira.

Ibilaldi honetan izena eman dutenek beren borondatez eta bere ardurapean hartzen dute parte lehiaketa honetan.

Beraz, uko egiten diote erakunde antolatzailea, laguntzaileak, babesleak, eta gainerako partaideak salatzeari, eta korrikalariekin edo haien oinordekoekin izan litekeen erantzukizun zibil orotatik libre eta salbuetsita utziko dituzte.

16. art.- DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURA ETA HELBURUA

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, honakoa jakinarazi behar dizugu: inskripzio-inprimakia betetzean emandako datu pertsonalak E3Dren (aurrerantzean “antolakuntza”) ardurapean dagoen fitxategi batean gordeko dira. Fitxategi hori helburu hauetarako erabiliko da: kirol-proba antolatzeko, parte-hartzaileen inskripzioa egiteko, dortsalen banaketa kudeatzeko, korrikalarien aseguruak kudeatzeko, egindako markak komunikabideetan zabaltzeko, parte-hartzaileen argazkiak eta irudiak komunikabideetan argitaratzeko, eta, oro har, kirol-ekitaldi bat kudeatzearekin eta antolatzearekin zerikusia duten helburuetarako.

Zure kontakturako datuak epemugarik gabe gordeko dira eta probaren babesleei laga ahalko zaizkie, antolakuntzak edo hirugarren batzuek prestatutako kirol-ekitaldiei buruzko informazioa bidaltzeko, edota kirol-probaren antolatzaileek edo babesleek eskaintzen dituzten produktuen nahiz zerbitzuen berri emateko. Bidalketa horiek ohiko bideetatik edo baliabide elektronikoz egin daitezke, eta, hala nahi izanez gero, zure datu pertsonalak ezeztatzeko eskubidea izango duzu.

17. art.- Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik eta inskripzioa ordaindu izanagatik, araudi hau betetzeko konpromisoa hartzen dute. ANTOLATZAILEEN ESKU EZ DAUDEN ARRAZOIAK DIRELA MEDIO, (Eguraldiagatik, Agintari eskudunek hala aginduta, edo beste arrazoi batzuegatik) LASTERKETA BERTAN BEHERA GELDITUKO BALITZ, ez da inskripzio-kuota itzultzeko eskubiderik izango.